



Haur Hezkuntza  
*5 urte*

# AMARA BERRI SISTEMA

GLOBALIZAZIOA SISTEMA IREKI BATEN BARRUKO BIZI BILAKABIDE GISA  
LA GLOBALIZACIÓN COMO PROCESO VITAL DENTRO DE UN SISTEMA ABIERTO

**D**okumentu honen bidez eskolako ezaugarri nagusiak jakitera eman nahi ditugu, honetarako oinarritzko bi dokumentu aipatuko ditugu: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) eta Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP)

IHPa gure oinarritzko dokumentua da eta bertan gure hezkuntza asmoa, lortu nahi duguna, jasota dago. Eskola-elkarte osorako (ikasle, irakasle, guraso, irakasle ez diren langileak) norberaren eta taldearen hazkunde bidetzat jotzen dugu.

Ikasleari buruz dugun kontzepzioa da gure IHParen ardatza:

- Ikasle bakoitza izaki globala da, beraz, bere garapenaren esparru guztiak hartzen ditugu kontuan: nortasuna, harreman sozialak eta arloekin lotutako ikasketak. GURE HELMUGA HAURRAREN GARAPEN ARMONIKO ETA GLOBALA SUSTATZEA DA. Beraz, eskolako helburu orokorrak biziki lotuta daude garapenaren hiru esparru hauekin.
- Norbera bere kontzeptu eta emozio eskematik abiatzen da, alegia, bakoitzak dakizkien gauzak dakizki eta modu ezberdinean bizi ditu. Norberak ere bere ahalmena du.
- Badago berezitasun bat haur guztiak batzen dituen: jolasarekiko interesa. Jolasaren bidez helduen mundua imitatzen dute eta imitazio horren bidez ikasten dute.

Printzipio metodologikoak ikaslearen izaerarekin guztiz lotuta daude eta gure eguneroko eginbeharra bideratzen dute:

- **INDIBIDUALIZAZIOA:** Eskolak, ikasle bakoitzak dituen ahalmena eta egoera kontuan harturik, bere mailan eta erritmoan lan egiteko aukera emango dion programa ahalbideratu behar du.
- **SOZIALIZAZIOA:** Kideen arteko elkarreraginak aurrera jotzen eta gure eskemak aldatzen laguntzen digu; honegatik, guk proposatzen ditugun aktibitate guztiak testuinguru sozialak dira.
- **AKTIBITATEA:** "Ikasleak bere kasa egin dezakeena, ez dezala irakasleak egin". Gure helburua ikasle gogotsuak, aurrea hartzen dutenak eta jakin-mina dutenak lortzea da.
- **SORMENA:** Gizaki orok duen gaitasuna da. Eremu guztietan sustatzen dugu, pertsona bakoitzak barruan daramana kanporatu eta bere berezitasunaz jabetzeko aukera izan dezan.
- **ASKATASUNA:** Besteen eskubidea errespetatuz, bakoitzak pentsatzeko, adierazteko, eta aukeratzeko duen eskubidea da. Muga bakarra besteen eskubidea da; honi "muga soziala" deitzen diogu.
- **NORMALIZAZIOA:** Haur bakoitzak inguruan duen espazioa eta bizitzen ari den egoeraz jabetzen joateari deitzen diogu normalizazio prozesua. Egoera berri eta aldakorren aurrean bere buruarekiko konfiantza sustatu nahi dugu erantzuna ahalik eta baikorra izan dadin.

- GLOBALIZAZIOA: Bizitza globala da. Haurra bizirik eta bizitzen nahi dugu eskolan eta bizi delako ikasiko du.

Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP) dokumentuaren bitartez aurreko ideiak eguneroko praktikan gauzatzen dira. Ikasleari buruz dugun ikuskerak, dena antolatzeko, programatzeko, esku hartzeko eta jarraipena egiteko era zehatz batera eramaten gaitu. Ondoren datozen metodologia ezaugarriek, ikuskera eta hezkuntza-praktikaren arteko koherentzia adierazten dute.

- Egitura bera esku harmenerako oinarritzko estrategia da.
- Osagarri eta egonkorak diren testuinguru sozialen bidez programatzen dugu, hau da, arloak elkar batzen diren bizi ekintzen bidez. Aktibitate hauei testuinguru Sozial, Egonkor eta Osagarriak deitzen diegu. Sozialak, umeen arteko harremanak sustatzen dituztelako; egonkorak, ziklo osoan mantentzen direlako; osagarriak, aktibitateen baturak curriculum osatzen duelako.
- Aktibitate guztiek beraien baitan edo ematen zaien irteeretan zertarakoa edo helburua dute. Lanak irteera desberdinak izan ditzake, gela barruan besteen aurrean aurkeztu, antzeztu, erakusketan azaldu...
- Aktibitate bakoitzak bere lan metodoa du, ikasleak bere eginkizuna era antolatuagoan burutzen joan dadin.
- Kritika eraikitzailea aurreratzeko baliabidetzat jotzen dugu.
- Aniztasunaren aldekoak gara. Daukagun programari ikasle bakoitzak bere erritmo eta mailaren arabera heldu diezaioke. Ikasketa prozesua ez da adinarengatik geldiarazten.
- Ezberdintasuna aberasgarria da eta ez diskriminatzeko arrazoia. Denok ezberdinak gara.

Ikastetxeak badu Arreta Bereziko Zerbitzua. Honek hezkuntza prozesuan zehar edo une jakin batean hezkuntza premia bereziak (edonolako zailtasunak, gaitasun urriak edo apartak,...) dituzten ikasleen beharrei erantzuten saiatzen da.

# Haur Hezkuntza

## Educación Infantil



*Margotegia*  
*Creación plástica*



*Etxea*  
*La casa*



*Antzerkia*  
*El teatro*



*Jolasak*  
*Los juegos*

3 urte



*Karga eta deskarga*  
*Carga y descarga*

4 urte



*Inprimategia*  
*La imprenta*



*Denda*  
*La tienda*

5 urte

*Psikomatrizitatea*  
*Psicomotricidad*

*Bideoa*  
*Video*

## TALDE OSOKO SAIOAK-SAIO KOLEKTIBOAK

**E**gunean zehar haur talde osoarekin gauzatzen ditugun saioak dira. Gelara sartzen garen bakoitzean haurrak dagokien gunean kokatzen dira eta lanari ekiten diogu. Egunero lau aldiz egiten ditugu era honetako saioak: Goizean eskolara sartzerakoan, jolas-orduaren ostean, bazkal ondoren eta arratsaldeko jolas-ordua eta gero.



Goizeko sarreran harrerak eta ongi etorriak du lehentasuna. Elkar agurtzeko unea da, orduan jakiten dugu nortzuk etorri garen eta nor falta den, irrikitan egoten dira irakasle eta taldekideei ekarri dituzten gauzak erakusteko, gertatu zaiena kontatzeko...

Jolas garai eta bazkariaren ondoren gai ugari sortzen dira egunero, komunean jartzeko garaia da, egoerak aztertu eta aurrerabideak aurkitzen saiatu.

Haurrentzat berriak diren **jarduerak eta materialak** (erabilpenerako arauak, mugak,...) aurkeztu behar izaten dira talde osoko egoeretan.

Talde osoko saioetan burutzen ditugun jarduera gehientsuenek lotura zuzena dute **hizkuntzaren garapenarekin**

- **Bizipen trukea- Solasa**

Interesatzen zaizkien gaien inguruko elkarrizketetatik abiatzen gara. Irakasleak parte hartuko du entzunez, galderak eginez, zehaztasunak eskatzen edota ereduak eskainiz haurren ahozko adierazpena geroz eta aberatsagoa izan dadin.

Jarduera honetan taldeko komunikaziorako derrigorrezkoak diren faktore eta antolaketa elementu ugari lantzen dira: parte hartu eta besteek esandakoa entzun, txanda lortu eta itxoin, gaiarekin jarraitu edota gai aldaketa proposatzea, desadostasuna azaltzea,...

Adin honetan, haur guztien partaidetza lortzea, eta, ematen denean, modu bideragarrian antolatzea izaten dira irakasleontzat erronkarik nagusienak.

- **Sketch**

Irudi osagarriak dituzten antzerkitxo laburrak dira. Eskolan sarritan gertatzen zaizkien gauzak, edo, eskolaz kanpokoak izanik beraiantzat esanguratsuak diren egoerak jasotzen dituzte.

Talde osoko saioetan aurkeztu eta antzezten dira eta poliki-poliki egoera bera eta dagokion hizkuntza (euskera) hedatzen eta aberasten saiatzen gara. Lotsati agertu daitezke sarritan horrelako eginkizun baten aurrean, irakasleoi dagokigu parte hartzen laguntzea.

- **Abestiak, ipuin irakurriak, ahokorapiloak, jolas dinamikoak...**

Bakoitzetik ekintza zerrenda luzea izaten du irakasleak. Nagusiki helburu ludikoa izaten dute eta saioa antolatzeko, arreta berreskuratzeko, deskantsu eta lasaitze guneak eskaintzeko erabiltzen ditugu.

- **Oinarrizko kontzeptuen ipuinak eta zehazki Euskara lantzekoak (ikus Antzerkia)**

Talde osoko saioetan aurkeztu eta kontatzen dizkiegu. Antzerki txokoan osatzen joango diren hainbat lanen ondoren beste haurren aurrean ipuinen antzezpena egingo dute eta ikusleen balorapena jasoko dute.

- **MUSIKA**

Musika programa ("Tutti da capo", Ibaizabal argitaletxekoa) talde osoarekin egiten ditugun saioetan gauzatzen da. Saio bakoitzak bere egitura du eta **musika hizkera** (melodia eta erritmoaren oihartzunak, musika irakurketa eta kantua), **musika kultura** (entzunaldien bidez) eta **musika jolasak** lantzen joaten dira.

- **JOLAS PSIKOMOTOREA**



Psikomotrizitate gelan egiten ditugu, gela hau bereziki diseinatu dago mugimenduaren bidez haurren adierazpena ahalbideratu eta sustatzeko.

Asmatzen dituzten jolasetan mugimenduak sortzen dien gozamina izaten da ardatz: erronka berriak, lorpenak, beldurrak gainditzeko joatea...

Jolas hauetan euren emozioak eta sentimenduak azaleratzen dira. Jolas sinbolikoak eta elkarrizketak ere bere tokia dute saio hauetan.

**G**une honetan egiten duten jolas askearen bidez euren **bizipen eta sentimenduen adierazpena** ahalbideratu nahi dugu. Etxean egiten duten jolasak etengabe jartzen ditu harremanean beste kideekin eta sozializazio prozesuan laguntzen die.

Etxeak sukaldea, jangela eta logela dauzka. Altzariak eta tresneria benetakoa da. Euren kasa jolas egiten dute eta hamaika bide hartuko ditu




jolas horrek: bazkaria egin, txangoak antolatu, panpina bainatu, paseatzera eraman...

Gogokoen duten papera hartuko dute gehienetan, beste batzutan ezinezkoa izango da eta taldekideen arteko konponketa bilatu beharko dute.

## Etxea

Horrela, txandak antolatzen eta desadostasunen aurrean

nolabaiteko erdi bideak bilatzen joango dira.



Ikasturte honetan ekintza berri bat burutzen dute etxean daudenean: erosketa. Hasieran trukean oinarrituko dira baina gerora jolasa arautzen eta antolatzen joango gara eta eskaera orria osatu beharko dute. Lan honetan zenbat diru behar duten, zein billete aukeratu, zenbat itzuli behar dion dendariak eta abar aurreikusiko dute. Horrela, kideekin jolas eginez, dirua eta salgaiak esku artean izanik, frogak eginez,... zenbaketaren munduan murgiltzen hasi eta oinarritzko eragiketa



matematikoaren hastapenetan abiatuko dira.

**A** din honetan txoko bakarrean elkartzen dugu 3 eta 4 urteko geletan Jolasetan eta Margotegian banatua zegoena. Jardueren eskaintza oso zabala da, eta, aukera ugari izaten dituzte. Irakasleok nolabaiteko orekaren bila saiatzen gara denetik egin dezaten.



## Margotegia

Gune honetako helburua, plastikaren eremuan, **adierazpena eta sormena** suspertzea jarraitzen du izaten.

Egin ditzaketen ekintzen esparrua oso zabala da. Batzuk, berez sortuko dira haurrengandik, beste batzuk, irakaslearen eskutik etorriko dira (material berriak eskainiz, interesgarriak iruditzen zaizkion aurrerapenak edo berrikuntzak azpimarratuz,...)

Honako ekintza hauek izendatu ditzakegu:

- Zigilu edo arrabilekin egindako estanzazioak,...
- Plantilen erabilpena siluetak marrazteko,...
- Irudi geometriko edo forma arraroko paperekin egindako ariketak konposaketan lehen urratsak ematen joateko...
- Paperak tolestuz egin daitezken aktibitateak...
- Bolumenaren hastapenak material birziklatuak erabiliz (kartoizko kutxak, tutuak, ...)

## Jolasak



**Asmatze jolasa** (eraiketak eta buztinaren modelatua) eta **jostailu didaktikoa** (puzzleak, dominoak, enkajeak, seriazioak, elkarketak,...) dira bi ekintza multzo nagusienak.

Aukeratu duten jolasa bukatzen dutenean kontrol orrian apuntatuko dute. Saiatzen gara nolabait orekatzen arlo plastikoari

eta jolasei ematen dieten denbora, baina haur bakoitzaren zaletasunak gaintzen dira normalean.

Helburuak honako hauek dira:

- Hainbat kontzeptuei buruzko eduki eta trebetasunak landu (espazioa, denbora,...)
- Kontzentrazioa, aditasuna, autonomia, zailtasunei aurre egiteko jarrera... eta antzeko gaitasunak sustatu.
- Taldekideen arteko komunikazioa eta elkarlana bultzatu

Irakasleok, haurren prozesua behatu eta jarraitzen dugu, beharrezkoa iruditzen zaigunean esku harmenak eginez.

Bloke logikoekin jolas eginez **logika matematikoari** dagozkion kontzeptuetan sakondu eta aurrera egin dezatela nahi dugu.

## Karga eta deskarga



Ikasturte honetan iaz hasitako jarduerarekin jarraitzen dute baina zailtasun maila handiago batekin. Berrikuntza bat eskaintzeko asmotan forma ere zertxobait aldatzen dugu.

Oinarrizko urratsak mantenduko ditugu: ezaugarrien txartelak aukeratu, baldintzak betetzen dituzten piezak bereiztu, ibilbidea egin, irakaslearekin egon, autokontrol orria bete,... baina adin honetan osatu duten multzoaren **adierazpen grafikoa** gehitzen dugu.

Pentsamendu logikoaren garapenari atxikitutako beste ekintza batzuk burutuko dituzte ere: sailkatu, antolatu, segidak osatu,...

Irakasleak haur bakoitzaren ibilbidea jarraitzen du, laguntza eskainiz eta erronka berriak luzatuz. Zeharkako esku-harmen bat ere izaten dugu, jarduerak aurrera egin dezan zailtasunean (txartelen aukeraketa beste moduren batean eginez, autokontrol orriaren erabilpenaren bidez, eskaera irakasleok eginez eta abar)

**T**xoko honetan **aho hizkuntza** eta **gorputz adierazpena** bultzatu nahi ditugu nagusiki. Honetarako ipuinak eta beste baliabide batzuk erabiltzen ditugu.

### Oinarrizko kontzeptuetako ipuinak



Haurren lehen hizkuntzan lantzen ditugu. Ipuin hauen bidez kontzeptu berriak sartzen eta jorratzen joaten gara eta baita ere hitz eta hizkuntz egitura berriak.

Ipuina ikasi eta taldeka antzezten dute.



Elkarrizketak errepikatzeaz gain euren adierazpen baliabideak hobetzen joan daitezten saiatzen gara: ahotsaren kontrola, lotsa gainditu, espresibitate egokia bilatu,...

Antzezenaren ondoren ikusleek balorapena egiten dute, lorpenak eta

## Antzerkia


hutsuneak bereiztuz eta hobetzeko proposamenak eginez. Pixkanaka balorazioetan

iritzi objektiboagoak erabiltzen hasten dira eta kritika jasotzen ikasten joaten dira.

### Euskarazko ipuina

**Ulermena** zabaltzea eta sakontzea, eta, hizkuntz **adierazpen** aberatsago bat lortzen joatea da ipuin hauekin egiten ditugun jardueren helburu nagusia. Elkarrizketak ikasitakoan ipuina antzezten hasiko dira, pertsonai bakoitzaren papera txandaka eginez, eta ikusleen balorapenarekin amaituz.

### Eskema erritmikoak



Haurrek idazten eta irakurtzen dituzten ikur segidak dira. Ekintza honen bidez, erritmoa, mugimenduaren koordinazioa, ezker-eskuin eta gora-behera norabideak lantzen dituzte. Musikarekin duen lotura nabarmena da eta irakur-idazketa ariketa bikaina da.

## Ipuin asmatua



Hurrek asmatutako ipuin laburrak dira. Lau orriko formatu bat erabiltzen dute eta eszenak (aurkezpena, korapiloa eta amaiera) marraztu ondoren kideei kontatzen diete. **Sormena** bultzatzeaz gain, denboraren ordena, segiden jarraipen logikoa, hizkuntza, errealitatearen adierazpen grafikoa eta abar lantzen dituzte.

**B**ost urteko geletan kokatzen dugu lan gune hau, beraz berria da haurrentzat. **Irakurketa eta idazketa** ahalbideratzea eta sustatzea du helburu.

Txokoan honako gauzak aurkituko dituzte: hormetatik eskegitako orri handi batzuk bakoitzaren argazki eta izenarekin, aurreko urtean landu zituzten fonemen bilduma, "inprenta" bat hizki guztien tanpoiekin haserako idazketa lanak errazteko, hitzak osatzen joateko hizki solteak dituzten xaflatxoak, eskuz idazteko orri desberdinak, irakurtzeko ipuin errazak...

## Inprimategia



Helburua ez da besterik gabeko dekodaketa lortzea, haurrentzat interesgarria eta funtzionala den irakurketa eta idazketan aurrera egitea baizik. Irakurri eta idatzi elkarren artean komunikatzeko, bizipenak adierazteko, ahaztu nahi ez dugun zerbait gogoan izateko, atsegin dugun

zerbait besteei agertzeko...

Beraz, hasieratik saiatuko gara haurrentzat esanguratsuak diren testuak sortzen: norberaren izena, adiskideena, maite dituzten pertsonaiena, eguneroko menua, albiste laburrak, gutunak, oharrak, bildumak eta albumak...

Ikasketa prozesuan, haur bakoitza bere ibilbidea osatzen joango da, etapa desberdinetatik igaroz. Adin honetan, ikusmen eta entzumen bereizketaren inguruan eta iaz egindako lanaren laguntzaz, haurrak gai dira hitzen hotsa eta irudia elkartzen hasteko. Oinarri honetatik abiatuz hipotesi ugari egiten dituzte sortzen zaizkien zailtasunei erantzuna eman nahian. Beste haurrek dakitenarekin kontrastatuz, eta, irakaslearen laguntzarekin, aurrera egingo dute gero eta zehaztasun eta trebetasun handiagoarekin.

Irakasleak, zailtasunen aurrean, laguntza eta seguritatea eskaintzen saiatzen gara. Laguntza hori onuragarria izateko jakin beharko dugu haurraren prozesua nola dihoan.

Aukera izaten dute ere beste lan osagarri batzutan saiatzeko: elkarketa jolasak, ipuin laburrak,...

**B**ost urteko geletan eskaintzen zaie lehendabiziko aldiz. Dendaren jarduera trukaketan oinarrituko da hasieran eta pixkanaka salerosketaren bideak antolatzen eta eratzen joango dira. Dendetan jolastea gogoko dute, euren interesetatik gertu dago, manipulaziorako aukera zabala dute, sortzen zaizkien arazoak konkretuak dira... Bakoitzak bere izaera kanporatuko du: eskuzabalak eta diru zaleak, langile porrokatuak eta "lasaiak" aurkituko dira dendan, norberak bere ekarpena eginez.

Kontzeptu eta prozedura matematikoak lantzen dituzte, zenbaketarekin zerikusia dutenak bereziki.




## Denda

Bi lan gune bereiztuak daude: Mostradorea eta kutxa. Ikasleek, bietan egingo dute lan, bata zein bestea txandakatuz.

Mostradorekoek salgaiak sailkatzen dituzte, kutxetan kokatu, zenbatu, eta emaitza dagokion orrian idazten dute. Hauek dira ere "bezeroei" kasu egingo dietenak, erosi nahi dituzten gauzak emanez. Erosleak agortzen direnean produktu berriak egiten dituzte (margotu, moztu,...) hurrengo saioan zer saldu izan dezaten.

Kutxakoak diruaz arduratzen dira. Lehendabizi, sailkatu eta zenbatu egiten dute, emaitza orrian idatziz. Bezeroak datozenean kutxakoak dira kontuak egin eta kobratzen dutenak. Urtean zehar aurrerapen ugari gertatzen dira kobrantza lan hauetan: kopuruak gero eta handiagoak dira, "bueltak" ematea buruhauste izugarria izango da sarritan,... Elkarren arteko eztabaidekin eta irakaslearen laguntzaz aurrera egiten joango dira.

Salerosketaren ondoren beste jarduera batzutan saiatzen dira. Erregletekin kalkulurako prozeduretan trebatzen joango dira, eta, "alfonbrak" eginez, zenbakien deskonposaketan sakonduko dute.



**A**stero hiru saio ematen dira, bakoitzak 30 minutuko iraupena izanik.  
Saio bakoitzak ondoko faseak ditu:



- 1.a Agurrak.
- 2.a Abestien eta errimen berrikuspena.
- 3.a Jarduera nagusia ( ipuinak, jokoak, produkzio artistikoak, antzezpenak, ...)
- 4.a Abesti edo arrima berriak.
- 5.a Agurra.

## INGLESA

Etapa honen helburua, ingelesarekiko giro motibagarria sortzea da. Hizkuntza berri bat ikasterakoan, hastapen fasean, subjektua hartzaile modura hartu behar dugu, ekoizpena beranduago eman ahal izateko. Horretarako, komunikazio egoera errealak eskaintzen saiatzen gara. Lantzen diren ipuinak, haurren bizitzako egoerak islatzen dituzte, eta, haietan eskaintzen den hizkuntza, sinplea baina esanguratsua da umeentzat. Era honetan, ikasleek apurka konfiantza hartzen dutenean, ahozko produkzioarekin hasi ahal izango dira, beti euren erritmoa errespetatuz.